



Txus Congil hil da

Txus Congil hil zen atzo, Etxarri Aranatzan, 58 urte zituela, azken urteak gaixorik pasa eta gero. Congil Hernanin ezaguna zen, Askagintzan egin zuen lanagatik. Askagintzako sortzaileetako bat izan zen, eta drogomenpekotasunaren gaia asko landu zuen; besteak beste, gai horretan ari diren elkarte eta herritarrei laguntza handia eman zien. Hezkuntzan ere aritu zen. ||

LITERATUR SOLASALDIAK Solasaldia, gaur

Ixiar Rozas idazlearen *Edo zu edo ni* liburua komentatuko dute gaur, Udal Liburutegian, 19:30etatik aurrera. ||

GOBERNU BATZORDEA Euskera Plana, batzordera gaur

Gobernu Batzordea bilduko da gaur, 14:00etan Alkatetzan, eta 4 puntu izango dituzte erabakitzeko. Bat, Udaleko Euskera Plana. ||

PELOTA

Arrieta-Aizpitarte finalean dira, Euskal Herrikoan

Euskal Herriko Txapelketan finalean da Hernaniko bikote bat: Arrieta eta Aizpitarte, asteburuan 22-9 irabazita. Ojuel eta Gorrotxategi berriz, finalerdietan dira, eta bi partiduak datorren asteburuan izango dituzte. Berria Txapelketan, Hernanik ez zuen zortetik izan, eta galdu egin zuen Huarteren kontra 2-1. Beraz, txapelketatik kanpora geratu dira.

Manzisorrek ezin, Kutxa Sarian

Frontoi motzeko Kutxa sarian, Manzisor eta Serre eliminatuta daude, asteburuan 22-30 galdu eta gero, Caset Mendizabalen kontra. ||

Kontrakantxa Gaztetxea - Hitzaldia gaur - Julio Barea Greenpeaceko kidea:

«Enpresak mutur-joka ari dira erraustegia egiteko; 400 miloi euro nahi dituzte»

Julio Barea Greenpeaceko kideak dioenez, Gipuzkoak urteetako diru-zorra izango du erraustegia egiten bada. Madrildarrak hitzaldia emango du gaur, asteartea, 19:00etan, Kontrakantxa Gaztetxean.

«SEKULAKO borroka darabilkute enpresa haundiek. Denek egin nahi dute erraustegia. FCCri eman diote, eta besteak kexatzen ari dira. Elkarrekin mutur-joka ari dira, denek nahi dutelako *karameloa*: 400 miloi euro inguru; ederra da gero!».

Julio Barea Greenpeaceko kontaminazio arduraduna da, eta hiri hondakinen gaia berak daramaki. Azken boladan erraustegien biabilitate ekonomikoa aztertzen ari da, Gaur Hernanin izango da, Kontrakantxa Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan.

Europako Bankuak kreditua eman du, erraustegia egiteko

Europako Bankuak 400 miloi euroko kreditua eman dio Gipuzkoako Diputazioari, erraustegia egiteko. Greenpeacek dioenez, hori astakeri bat da, eta kexa bat sartu dute bankuan, esanez, irregularitatez



Julio Barea Hernanin izan zen iazko ekainean.

betea dagoela, eta gizartearen zati handi bat kontra dagoela. Gaineratu du, kreditu horri bueltan emateko 20 urte behar dituela Gipuzkoak eta

gipuzkoarrek ordaindu behar dutela zor hori. «Tasak igo egingo dira, dudarik gabe. Zulo hori herritarrek ordaindu behar duzue, Palma de Ma-

JULIO BAREA:

«Erraustegia prehistorikoa da: lanpostu gutxi sortzen ditu, sekulako dirutza balio du, kontaminatu egiten du...».

Ilorcan eta beste leku guztietan bezala. Palman %20 igo ziren zabor tasak; 200 euro inguru ordaintzen dute urtean».

«Kontaminatu? Bai horixe!» Erraustegia ekonomikoki aztertzen ari dira, osasunari kalte egingo diola oso frogatuta omen dagoelako. «Eguzkia egunero ateratzen da ba? Hori bezain segurua da erraustegiak kontaminatu egiten duela. Orain ekonomikoki ari gara aztertzen, eta frogatu dugu, lan gutxiago sortzen duela, gastu izugarri du. Prehistorikoa da». ||

Atletismoa - Euskadiko Txapelketa - Urrezko dominak 60 eta 200 metroan

Iruretagoyena, tximistarik azkarrena

60 eta 200 metroko probak irabazi zituen, eta denboraldiko marka egin zuen 200 metroan, 24.80.

EUSKADIKO Txapeldun berria hernaniar bat da, Maitane Iruretagoyena. Nagusien mailan irabazi zuen 60 metroan eta 200 metroan, eta denboraldiko marka egin zuen 200

metroan, 24 segundo eta 80 zentesimarekin (errekor pertsonala 24.48 dauka).

Azkarren artean azkarrena Asteburuan bildu zituen Do-

nostiak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako atleta azkarrenak, pista barruko tximistak. Azkarrena, Hernaniko tximista. 60 metro egiteko, 7.61 behar izan zituen finalean

(finalerdietan 7.77), eta 200 metro egiteko 24.80 (finalerdietan 25.35). Urrezko beste bi domina beraz, Hernanira etorri direnak; eta ez dira azkenak izango, seguruenera. ||

INSTALHER
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

IBERDROLA: BEZERO ARRETA ZERBITZUA.

- MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zatuz eta informatu zaituz!

NAFAR KALEA, 17
20120 HERNANI
GIPUZKOA

instalher@instalher.e.telefonica.net

943 55 33 01
616 58 32 02
606 94 23 96

Allianz ASEGURUAK

bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

25 urte elkarrekin
Karmele eta Josu

Zorionak!!
Etxekoan partetik

☎ TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Mendebaldeko haizeak aginduko du gaur, eta lainoak eta euria ekarriko ditu. Kolpe zakarrak joko ditu haizeak goietan, batez ere. Min.7° / Max.13°

BIHAR Haizeak aginduko du bihar ere, baina hego puntua hartuko du. Tenperaturak igo egingo dira, eta laino jarraituko du. Euri askorik ez du egingo. Min.5° / Max.14° (euskaime)

❖ ABIADURA HAUNDIKO TRENAREN KONTRAKO TALDEA:

«Expropiazioak otsailaren 24an, 25ean eta 28an egingo dituzte»

Expropiazioen kontra, batzar informatiboa egingo dute otsailaren 23an, eta kontzentrazioa eta paroa deitu dituzte, otsailaren 24an.

AHTren kontrako taldeak prentsa oharra bidali du Kronikara eta bertan dio, expropiazioak otsaila bukatu hasiko direla. «Hernanira Fomento Ministeritzakoak otsailaren 24, 25 eta 28an etorriko dira. 3 egunetan expropiatuko dituzte Hernaniko 114 lur zatiak».

Bi deialdi, expropiazioak salatzen

Hori salatzen, AHTren kontrako taldeak dei egin du bi mugimendutan parte hartzen. Batetik, otsailaren 23an herri batzarra egingo dute informazioa emateko, 19:30etan Kontrakantxan. Bestetik, otsai-

AHT-REN KONTRAKO TALDEA:

«Erraustegia prehistorikoa da: lanpostu gutxi sortzen ditu, sekulako dirutza balio du, kontamin».

laren 24an, goizeko 08:30etan kontzentrazioa egingo dute Gudarien plazan, eta ikaste-txeetan paro deialdia egin dute ordu horretarako.

10 hektareako subestazioa Hernanin 10 hektareako subestazio elektrikoa egingo

dute, Osiñagan, eta AHTren kontrako taldeak dioenez, bertatik 400.000 Vko argi-linea aterako da, AHTari indarra emateko.

Gastu ekonomiko izugarria du AHTak, prentsa oharrean adierazi dutenez: «herriar bakoitzeko 4.790 euroko gastua du AHTak. Krisi garai honetan, murriztu dituzte partida asko eta asko baina AHTarena ez dute zailantzan jarri. Gaur egun, aurrekontu hori betetzeko arazoak izango dituzte. Begibistakoa da, Bizkaian, esate baterako, tramo batzuk geldirik daude, kontuak ez zaizkielako ondo ateratzen». ||

◆ TXANTXANGORRI

Musa, gaur

Mus partidak izango dira gaur, bihar, eta etzi, Txantxangorri Elkarte Txapelketaren barruan. Gaurko partidak, hauek: Etxarri-Juan / Calvete-Nicolas; Mauri-Txanpi / Iñaki Marcos; eta Emilio-Ibon / Jesus-Iñigo. Final 16renetako partidak dira, eta 32 bikote ari dira, zein baino zein. ||

◆ SASKIBALDIA

Gero eta indartsuago

Hernanik 47 puntuko aldea kendu zion asteburuan Baskoplastika taldeari, ligako partiduan. 83-36 irabazi zuten hernaniarrek, eta jendez larri xamar badabiltza ere, gero eta sendoago jarraitzen dute lidertzan. Eta partidu gutxiago falta dira play offerako. ||

◆ ARRAUNA

Ederki, hernaniarrak

Orion jokaturako estropada eta gero, hernaniarrak ederki dira sailkapenean. Mutilak 7garren daude, 50 sendora; neskak 4garren, 40ra. Kadeteak primeran dabilta, baita ere: bi batelak 17ra daude lehenengotik eta 4-5 postuetan daude. Hurrengo estropada, Pasaian. ||

👉 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Ezaren gudaz baietza sortuz Herri hau, Euskal Herria, ezetzaren zurrumbilano murgilduta zuten eta horrela jarraitzea nahi zuten. Herri bezala ditugun eskubideei ezetza, askatasunari ezetza, eskubide zibil eta politikoei ezetza, gure hizkuntzari ezetza, langileen eskubidei ezetza, gizarte berri, aske eta solidarioari ezetza, bakeari ezetza, itxaropenari ezetza. Batzuk bortxa eta gatazka giroan gustora zeuden, azken finean zein aitzaki ederra den *biolentzia* negozioko egiteko, eskubideak ukatzeko eta kargu politikoak lortzeko. Baina bai ezker abertzale-

ak, bai beste eragile politiko, sindikal eta sozialek, eta batez ere euskal herritar multzo abertzale eta ezkeriarrek, euskal jende aurrerakoi eta independentistak herri hau baietzaren norabidetik ermaten ari dira. Egindako lana eta esfortzua uzta oparoa ematen ari da, herri honen martxa azkartu egin da. Garai berriak datoz, tresna, jokamolde eta bide berriak eskatzen dituztenak. Garai hauetan adimena, pazientzia, inteligentzia beharoko dugu. Gure herriaren etorkizuna, gure aberriaren beharrak edozein alderdikerien gainetik jarri behar ditu-

gu. Probokazioak jasoko ditugu eta soseguz baina tinko erantzun dugu. Estatuaren biolentziak hor jarraitzen du eta horren aurrean gure arrazoiaren sendotasuna eta gure helburuen zilegatasuna modu ulergarrian defendatzea da gure tresna onena. Garai berriak datoz bai, baina helburuak argiak dira: independentzia, sozialismoa. «*Eta horrela bizitzen gera /sortuz ta sortuz gure aukera/ atsedetik hartu gabe/ lana eginaz goaz aurrera/ kate horretan denok batera...*» Bide onetik goaz.

Mikel Arrieta Iraola

◆ ERRUGBIA

Neskek, errugbi taldea

ERRUGBI Elkarteak jakinarazi duenez, nesken taldea izango dute datorren urtetik aurrera. Joan den astean bilera egin zuten Landaren, eta oinarri buruz hitz egin

zuten. Nerea Granados eta Maider Garmendia izango dira arduradunak eta entrenamendu saioak aurtengo hasiko dira, apiriletik aurrera, animatzen denarentzat. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

TXUS CONGIL INFANTE

JAUNA
Atzo, hilaren 14an, kristauen legez hil zen
Etxarri Aranatzen 58 urte zituela.

Goian bego

Bere emaztea: Marian Mendiola Barandalla; semea: Ekhi; aita-amaginarrebak: Jesus eta Puri; anai-arrebak: Mercedes, Tomas (+), Jose Manuel, Mikel eta Mari Carmen; ezkon anai-arrebak: Chema Valero, Pili Fernández, Marian Ruiz de Garibay, Amaia Ross, Josean Costa, Fermiña, Jaxone, Enekoitz eta Kitz Mendiola eta Iñaki Arratibel; osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek

Etxarri Aranatzeko, **JASOKUNDE AMA BIRJINAREN** eliz parrokiaren bitartez, bere animaren betirako atsedenera alde, hurrengo **IGANDEAN, 20an, EGUERDIKO HAMABITAN** egingo den hiletan elizkizuneari parte hartzea gonbidatzen zaituzte.

Gorputzaren erreketak **GAUR, ASTEARTEA 15, GOIZEKO BEDERATZIT ERDIETAN**, Iruñeko hilerrian izango da.

Funeraria Ulayar / IRATXE TALDEA.
Etxarri Aranatzen - Hernanin, 2011ko otsailaren 15ean

TXUS CONGIL INFANTE

Zure oroimena beti izango da gurekin

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udala Patronatua

Hernaniko Udala

Hernanin, 2011ko otsailaren 15ean

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Gela alokagai Kale Nagusian. Sukalde eskubidearekin. Hilean 300€ + gastuak (gasa, ura...) Deitu: 659 363 944 (Agustin)

Elizatxon pisua alokatzen da. Kanpora ematen du etxe guztiak. 2 logela, sukalde handia, sala, komuna. Kalefakzioa du eta ondo jarria dago etxea. Deitu: 649 0409 33 (Juanmi)

Ofizina alkatzen dira Plaza Berrin. Ofizina errepresentatiboak. Deitu: 658 820 916

Pisu ederra salgai Latsunbe Berrin. Sukaldea, egongela, 3 gela eta 2 komun. Egoera onean. Trastelekuarekin eta garaje itxiarekin: 360.000 euro. Tel: 600039938

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Pisu salgai Latsunbe-berrin. Behe planta. 61m2. Sukaldea, saloia, 2 gela eta komuna. Terraza (25m2) eta lorategia (52m2). Garajea ere aukeran. Deitu: 678 740 750

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

ENARA GOIKOETXEA. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. Fotorejuvenecimiento, Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

BASERRIKO SAGARDOA

GOIKO LASTOLA
SAGARDOTEGIA

*Sagardo naturala
% 100 bertako sagarra*

✓ Ostegunetik igandera irekita
✓ Asteburuan eguerdietan ere zabalik

☎ 943 55 32 72 - 620 78 35 29

Ereñotzu auzoa - Hernani